

hezkuntzako

laboralak

ESLEIPENEN BALORAZIOA

	05-06 Eibar Hezkuntza Laguntzako Espezialistak					06-07 Eibar Hezkuntza Laguntzako Espezialistak				
	Osoak		Murriztuak		Guztira	Osoak		Murriztuak		Guztira
	eusk	gazt	eusk	gazt		eusk	gazt	eusk	gazt	
ARABA	19	20	8	5	52	28	28	7	7	70
BIZK.	81	16	16	1	114	88	15	22	1	126
GIPUZ.	55	--	39	--	94	54	--	31	--	85
Guztira	155	36	63	6	260	170	43	60	8	281

	05-06 Eibar			06-07 Eibar		
	Fisioterap.	Lan Terap.	Transkrip.	Fisioterap.	Lan Terap.	Transkrip.
ARABA	2	--	--	2	--	--
BIZK.	--	1	--	4	2	2
GIPUZ.	--	2	--	--	2	--

Hezkuntza Laguntzako Espezialisten lanpostuei dagokienez, igoera txikia dagoela ikus dezakegu, aurreko kurtsoko esleipenekin konparatuz. Herrialdeka portaera desberdinak egon dira: Araban beharrak pilo bat igo direla ematen du, baina ez da hainbesterako: Araban zeuden 14 langile Bizkaian finkatu dira leku-aldatze lehiaketa erabiliz; hori dela-eta, esleipenetan Arabako plazak iazkoak baino azkoz gehiago izan dira, eta Bizkaian oso igoera txikia egon da. Gipuzkoan, aldiz, lanpostu hutsen kopurua pasa den kurtsokoa baino baxuagoa izan da: Administrazioak dioenez, beharrak eta lanpostuak lehen ez zetozen bat eta oraingo estutzearekin egokituta daude. Ikusiko dugu.

Bigarren taulan esleitu diren Fisioterapeuten, Lan Terapeuten eta Transkriptoreen plazak agertzen dira. Araban eta Gipuzkoan iaz bezalako kopuru berbera egon da, baina Bizkaian hiru kolektiboak hazi dira.

Irakasleei dagokienez, behartuta dago **STEE-EILAS** esatera egutegiarekin arazoak izan direla Bigarren Hezkuntzan. Uztailean bidali zigun Hezkuntza Sailak herrialde bakoitzari zegokigun egutegia eta honetan zehazten zen lan-legepeko irakasleek noiz hartzen zuten plaza.

Hiru urte jarraian Gipuzkoako Delegazioak egutegi ofiziala hankaz gora jarri du bi egun lehenago deitu baititu lan-legepeko irakasleak esleitzera. Nola da posible urtero arazo bera suertatzea eta konponbiderik ez jartzea? Nola da posible esleipena gauzatzea baldin eta lan-legepekoekin hitz egin ez bada?

Ulertzen da urteren batean aldrebeskeriaren bat gertatzea, baina ez da posible urtero hankasartze berdina egitea, ala bai? ★

